

Sariarekin aitortza bat egin diote elikadura osasungarriaren alde daukan konpromisoari

ENPRESA EKIMEN ONENAREN NAOS SARIA JASO DU EROSKI-K

- **Agustin Markaide EROSKIko presidentek jaso du saria, Maria Luisa Carcedoren eskutik, Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko jarduneko ministroa bera**
- **Epaimahaiak aitortza egin dio EROSKIren EKILIBRIA programari, zeinak nutrizio arloko diagnostiko pertsonalizatua doan eskaintzen dion kontsumitzaileari**
- **Bigarren aldiz lortu du NAOS saria, eta hiru akzesit ere baditu aurretik**

Madril, 2019ko azaroaren 19a.- Agustin Markaide [EROSKI](#)ko presidentek gaur goizean jaso du *NAOS Estrategiaren Saria Enpresa Ekimenaren sailean*, [EKILIBRIA](#) programagatik. Maria Luisa Carcedoren eskutik jaso du saria, Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko jarduneko ministroa bera.

[NAOS sarien XII. ekitaldi horretan](#) 93 proiektu aurkeztu dira sail batean baino gehiagotan. Epaimahaikoari EROSKIrena iruditu zaio enpresa ekimenik onena, elikatzeko ohitura osasungarriak hartzen laguntzen dielako herritarrei bere EKILIBRIA programarekin. Sari horiek NAOS Estrategiaren parte dira, eta Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioak bultzatzen ditu Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren bitartez. Asmoa da gizentasunari eta bestelako gaitz kronikoei aurrea hartzen laguntzen duten ekimenak bultzatzea, elikadura osasungarriarekin eta jarduera fisiko erregularrarekin.

"EROSKIIn, orain 50 urte sortu ginenetik, konpromiso sendoa dugu kontsumitzaileen osasunarekin eta ongizatearekin. Kontsumo kooperatiba garen aldetik, gure izaeran doa hori. Ohitura osasungarrietan laguntzea, hortaz, lehentasunezkoa da EROSKIIn, eta gure jardueraren egunerokoan txertatuta doa; horregatik ditugu lan ildo asko gure bezeroei bizimodu osasungarriagoa eskuragarriago jartzen dizkietenak. Horietako bat da, hain zuzen, osasunean aurrearia den gure programa, gaur NAOSen saria irabazi duena. Programa horrek doan ematen ditu elikadura eta erosketa osasungarriagoa eta orekatsuagoa egiteko informazioa eta pizgarriak. Aitortza honek balioan jartzen du elikatzeko ohitura osasungarriak hartzearen alde egiten dugun ekarpena, eta ildo horretan jarraitzera animatzen gaitu", esan du

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Agustin Markaide EROSKIko presidentek *Naos Sarien* ospakizunean, gaur, Madrilen.

Espanian programa aitzindaria da [EKILIBRIA](#), eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen ditu nutrizio arloko diagnostiko pertsonalizatua eskaintzeko EROSKIren bezero-bazkideen erosketa ohituretatik abiatuz. Programa horrek, gainera, nutrizio kalkulagailu bat ere badakar norbere gorputz masaren indizea jakiteko eta guztira zenbat energia gastatu den ikusteko, eta beste adierazle batzuk ere baditu, kontsumitzailearen nutrizio egoeraren gainean balorazio osoago bat izateko. Ebaluazio horren bidez, kontsumitzaileei aukera ematen die erosketa saskiaren osaera hobetzeko eta, era horretan, produktuen konbinazio orekatsua lortzeko, norberak nutrizio arloan dituen beharrietatik abiatuta. Programak txosten pertsonalizatu bat bidaltzen du hileroko, eta EROSKIko bazkide-bezeroak oso modu errazean jakin dezake bere erosketa orekatua ote dagoen elikagai multzo guztietan eta kaloriak eta beste mantengutzaileak zenbateraino egokitzen zaizkion haren beharrietan. Horrekin batean, denborarekin norberak zenbat aurreratu duen ere ikus daiteke, azken hamabi hilabeteetako bilakaeraren berri ematen du eta.

Era berean, errezeta osasungarri sorta zabal bat ere eskaintzen du programak, eta nutrizioaren gaineko kontsultategi bat, non EROSKIren nutrizionista taldeak aholkuak eta argibideak ematen baititu.

EROSKI k bigarren aldiz eskuratu du NAOS saria

NAOS sari hau ez da lehenbizikoa. 2008an ere hartu zuen, EROSKI Zurekin nutrizio eta ongizate programarengatik. Programa horretan, marka propioko produktuen nutrizio kalitatea hobetu zen, eta, hala, landare gantz partzialki hidrogenatuak kendu; horrekin batera, marka propioko produktuen nutrizio etiketa ere hobetu zen, nutrizio arloko semaforoa txertatuta, eta kontsumitzailea hezteko eta informatzeko jarduerak martxan ipini ziren, baita haur gizentasunari aurrea hartzeko kanpainak egin ere.

Bi sari horietaz gain, beste hiru akzesit ere baditu EROSKI k, 2011n, 2014an eta 2018an lortuak, eta horrek berretsi egiten du elikadura osasungarriaren alde egin duen apustu jarraitu eta sendoa. Apustu hori, gainera, jasota dator [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen 10 Konpromisoetan](#), zeinak ardatz hauen inguruan biltzen diren: elikadura arloko segurtasuna, elikadura osasungarriaren eskuragarritasuna, tokian tokiko janari ekoizpena sustatzea eta ohitura osasungarrien inguruan hezte eta informatzea. Horiek guztiak aurrera ateratzeko, 20 jarduera lerro baino gehiago lantzen dituzte.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)